

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beñat Herce LEceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregi
Jose Angel Petralanda Gil
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
Rosa Arkarazo Arkarazo
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria.

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamalauko otsailaren 25ean, arratsaldeko seiak eta erdian, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Landa andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 25 de febrero de 2014, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Landa.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2013-10-29an egindako osoko bilkuraren akta onartu da.

2. ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2014ko otsailaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Jarraian, jarritako errekursoei buruzko ondorengo erabakien berri eman da:

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B/14/00061

DATA: 2014/01/31

GAIA: PROZEDURAN AGERTZEA

ESPEDIENTEA: 2014IGAP0006

INTERESDUNA: ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO DONOSTIAKO 1. EPAITEGIA

VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI S.A.- EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA E.A. VISESAK administrazioarekiko auzi-errekursoa jarri zuen 2013ko martxoaren 5eko 181 zenbakidun Alkate erabakiaren aurka. Erabaki horrek atzera botatzen zuen VISESAK egindako eskaera "Santa Marina" HIEen VISESAren jabetzeko lurzatian lurraldi eusteko egindako lanen gastuak "Santa Marina" HIEko urbanizazio kargatzat hartzeko.

AAJLko 48 eta 49 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

1.- Erabaki horri buruzko expediente osoaren kopia eskuetsia bidaltzea Administrazioarekiko Auzietako Donostiaiko 1. epaitegira.

2.- Aipatutako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtoan agertzea MIGUEL ANGEL OTEIZA ISO prokuradore jaunaren bitartez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letratu jaunaren zuzendaritzapean.

3.- AAJLko 49.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, expedientean interesa duten guztiei jakinaraztea erabaki hau, eta interesdun horiei epatzea EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 1. epaitegian jarritako administrazioarekiko auzi-errekursoaren (procedura arrunta 27/2014) expedientean demandatu bezala agertu ahal izan daitezen. Demandatu bezala agertzeko bederatzi eguneko epea izango da.

Eskoriatzan, 2013ko urtarrilaren 31n

ALKATEA

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B/14/00079

DATA: 2014/02/11

GAIA: PROZEDURAN AGERTZEA

ESPEDIENTEA: 2014IGAP0009

INTERESDUNA: ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO DONOSTIAKO 3. EPAITEGIA

CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA S.L. enpresak administrazioarekiko auzi errekursoa jarri du 2013ko urriaren 17ko 1080. Alkate erabakiaren aurka. Erabaki horrek 2013ko irailaren 23ko 979. Alkate erabakiaren aurka jarritako berrazterte errekursoa ezesten zuen.

AAJLko 48 eta 49 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

1.- Erabaki horri buruzko expediente osoaren kopia eskuetsia bidaltzea Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 3. epaitegira.

2.- Aipatutako Administrazioarekiko Auzi-Errekurtoan agertzea MIGUEL ANGEL OTEIZA ISO prokuradore jaunaren bitartez eta JUAN RAMON UGALDE EGAÑA letratu jaunaren zuzendaritzapean.

3.- AAJLko 49.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, expedientean interesa duten guztiei jakinaraztea erabaki hau, eta interesdun horiei epatzea EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Donostiako 3. epaitegian jarritako administrazioarekiko auzi-

errekurtoaren (procedura laburtua 6/2014) espedientean demandatu bezala agertu ahal izan daitezen. Demandatu bezala agertzeko bederatzi eguneko epea izango da.

Eskoriatzan, 2014ko otsailaren 11n

ALKATEA

Berariaz eman du ere 2014ko aurrekontuari kredituak aurreratuta txertatzeko 1. espidenteak onartzeko hartutako erabakiaren berri. Txertatutako kredituak honako hauek izan dira:

AURREKONTU PARTIDA		DESKRIPZIOA			ZENBATEKOA
AURREKO EKITALDIKOA	EGUNGO EKITALDIKOA	CO D	IZENA		
0401.625.451.92.01	0401.625.451.92.01.13	D	ALTZARIAK:ZALDIBAR ANTZOKIA	45.000,00 €	
0401.625.451.92.99	0401.625.451.92.99.13	D	BESTELAKO LANABESAK:ZALDIBAR ANTZOKIA	19.759,43 €	
0101.622.451.92.01	0101.622.451.92.01.13	D	ZALDIABAR ANTZOKIA EGOKITZEA	205.000,00 €	
0101.601.451.92.10	0101.601.451.92.10.13	D	ANTZOKIAREN URBANIZAZIOA	152.000,00 €	
0101.601.511.00.01	0101.601.511.00.01.13	D	ARANA-GAZTAÑADUI KALEA	99.442,19 €	
			TXERTATUTAKO KREDITUAK GUZTIRA.	521.201,62 €	

3.- DEIALDIKO GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Bertaratutako udalbatzarkideek aho batez erabaki dute ondorengo gaiak gai zerrendan sartzea.

6.- GAZTAÑADUIKO UDAL LOKALAK ALOKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA. BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA ONARTZEA.

10.- JUAN LUIS MERINO ZINEGOTZIAK EGINDAKO PROPOSAMENA TOKI AUTONOMIA BABESTEKO GATAZKA AURKEZTEKO.

4.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ALDATZEA: **6. ERANSKINA: "Mankomunitateko zerbitzuak: Hiri hondakin solidoa jaso, garraiatu eta birrintzeagatiko tasa"** **3. ERANSKINA: "hirugarren batek eskatuta udal administrazioak edo udal agintariekin ematen dituzten dokumentuengatik ordaindu beharreko tasak".**

Alkateak, Ogasun batzorde informatzaileko buruak, proposatzen den aldaketaren edukiaren eta aldaketa hori egiteko arrazoien laburpena egin du.

Ondoren, Merino jaunak denden tarifei buruz (ez direnak aldatu) egindako galdera argitu du, eta baita Urrutia jaunak 500 metrotik gora zerbitzua emateagatik egiten den salbuespenari buruz, aldaketarekin indargabetuta geldituko litzatekeena, egindakoa ere.

Urrutia jaunak esan du aurka bozkatu behar duela, uste duelako aldaketa hondakinak batzeko sistema berria ezartzeagatik, hau da, atez atekoarenengatik egiten dela.

Hitz egiteko txanda amaituta, Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Urrutia jaunak aurka bozkatuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiak alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatiko tasa arautzen duen ordenantza fiskala aldatzea (3. eranskina: "hirugarren batek eskatuta udal administrazioak edo udal agintariekin ematen dituzten dokumentuengatik ordaindu beharreko tasak", eta 6. eranskina: "Mankomunitateko zerbitzuak: Hiri hondakin solidoa jaso, garraiatu eta birrintzeagatiko tasa") ondoren esango den moduan:

3.- HIRUGARREN BATEK ESKATUTA UDAL ADMINISTRAZIOAK EDO UDAL AGINTARIEK EMATEN DITUZTEN DOKUMENTUENGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK

Tasa berri hau jasotzea:

- Udal etxebizitza tasatuetarako esleipendunak aukeratzeko espedientea tramitatzea: 150 euro + 25 euro etxebizitza edo lokal bakoitzeko.

6.- HIRI HONDAKIN SOLIDOAK JASO, GARRAIATU ETA BIRRINTZEAGATIKO MANKOMUNITATEKO ZERBITZUAREN TASA.

- **Honako hau dioen lekuan:**

8. artikulua. Tarifik, baliokidetasunak eta irizpideak

Zergadun bakoitzak bere kategoriari dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzaren tasak ondoren adierazten den baliokidetasuna dauka 1.1 tarifarekiko.

KATEGORIA	TARIFA	LANGILE KOPURUA	BALIOKID ETASUNA	SEIHILEKO TASA €
1. Etxebizitzak	1.0	-	0,40	21,90
	1.1	-	1,00	52,98
2. Biltegi eta komertzioak	2.1	≤2	3,18	168,48
	2.2	≤5	5,30	280,79
	2.3	≤15	10,60	561,58
	2.4	>15	15,90	842,37
3. Ostalaritza, elikagaiak eta zerbitzuak	3.1	≤2	4,24	224,63
	3.2	≤5	7,95	421,18
	3.3	≤15	13,25	701,97
	3.4	>15	18,55	983,10

4.	Industria jarduerak eta zerbitzuak	4.0	≤ 2	3,18	168,47
		4.1	≤ 5	8,48	449,25
		4.2	≤ 15	15,90	842,37
		4.3	≤ 50	21,20	1.123,16
		4.4	≤ 100	26,50	1.403,95
		4.5	≤ 500	31,80	1.684,74
		4.6	> 500	37,10	1.965,53
5.	Aurrez hitzartutako zerbitzuak	5.1	-	21,20	1.123,15

Tasa horiek aplikatzeko honako irizpideak hartuko dira kontuan:

1.- Ez dira zergaduntzat joko etxebizitzatik edo 2, 3, 4 edo 5 kategoriko edozein jarduera egiten den lokaletik zaborra jasotzeko puntu hurbilenera 500 metro edo gehiagora dutenak. Ez dira zergaduntzat hartuko ere egoitza soziala Eskoriatzan izan eta erakundearen helburuak benetan eta modu eragingarrian Eskoriatzan garatzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeak eta horiekin parekatu daitezkeen irabazi asmorik gabeko elkartea.

2.-Etxebizitzak (1 kategoria). Bi tarifa bereizten dira:

- 1.- Tarifa 1.0: Lur ez urbanizagarrian dauden etxebizitzak (baserri auzoetan). Artikulu honetako 4.a puntuaren deskribatutako kasuak ere tarifa honetan sartzen dira.
- 2.- Tarifa 1.1: Beste etxebizitza batzuk. Hiri lurrean edo lur urbanizagarrian dauden etxebizitzak ere tarifa honetan sartzen dira (artikulu honetako 4.a puntuaren ezarritako salbuespenarekin).

3.- Gainerakoak (2, 3, 4 eta 5 kategoriak):

1. Lur ez urbanizagarrian kokatuta daudenak (baserri auzoetan). Zaborra jasotzeko puntu 200 metro edo gutxiagora baldin badaukate, tarifa osoa ordainduko dute. Jasotzeko puntu 200 metro baino gehiagora baldin badaukate, % 50 ordainduko dute.
2. Hiri lurrean edo lur urbanizagarrian dauden zergadunek tarifa osoa ordainduko dute, artikulu honetako 4.b puntuaren datorren salbuespenarekin.

4.- Hiri lurrean edo lur urbanizagarrian dauden zergadunek 200 metro edo gutxiagora izan behar dute hondakinak jasotzeko puntu. Kasuren batean hori betetzen ez bada, eta kasua aztertu ondoren Mankomunitateak esaten badu ezinezkoa dela jasotze-puntu hori 200 metro edo gutxiagora jartzeari, orduan:

- a) Etxebizitzek: 1.0. tarifa ordainduko dute
- b) Gainerakoek: ordaindu beharreko tarifaren %50a ordainduko dute.

5.-Hiri hondakinak jasotzeko maiztasunak ez dauka loturarik erabiltzaileak ordaindu behar duen tasarekin.

6.- Eraikina edo etxebizitza hutsik egoteak ez du esan nahi jabeak tasa ordaindu behar ez duenik.

7.- Aisialdirako elkartea. Baloikidetasun hau daukate:

- a) ≤ 50 sozio, 3.1 tarifaren baliokidea.
- b) > 50 sozio, 3.2 tarifaren baliokidea.

8.- Jarduera profesional edo komertzialak eta zerbitzuetakoak, baldin eta inoren bizileku diren etxebizitza edo lokaletan gauzatzen badira: ile-apaindegia, kontsultak, etab. Tarifa zein den ezartzeko, kontuan hartuko da alde batetik etxebizitza, eta bestetik bertan gauzatzen den jarduera; izan ere, jarduera profesionalak eta etxebizitzak, bakoitzak bere hondakinak sortzen ditu eta bakoitzari bere tasa ezarri behar zaio.

9.- Biltegietarako lokalak. Zergaduna, biltegi horretan merkataritza edo industria jarduera gauzatzen duena izango da. Jarduera beste leku baten gauzatzen badu eta

lokala materiala gordetzeko bakarrik erabiltzen badu, berriz, ez da zergaduntzat hartuko, nahiz eta zergadunen erroldan egon.

10.- Gurtzarako lekuak eta komentuak 2.1.tarifan sartuko dira.

11.- Eskolak, ikastolak, akademiak, ikastetxeak, haurtzaindegia, etab. 2 kategorian sartuko dira, eta dagokien tarifa aplikatuko zaie, irakasle kopuruaren arabera.

12.- Zaharren egoitzak eta ikasleen egoitzak 2 kategorian sartuko dira eta dagokien tarifa ezarriko zaie, ohe kopuruaren arabera.

13.- Auzo-etxeei edo auzo lokalei 1.1 tarifa ezarriko zaie aurrez herri onurakotzat izendatzen badira.

14.- Familiako txokoei 1.1 tarifa ezarriko zaie.

15. artikulua. Baliogabe uzten da.

9. *artikulua. Errolda.*

1. Errolda sei hilero egingo da eta bertan agertuko dira zergadunak zeintzuk diren eta ordenantza honen arabera zein kuota likidatuko zaien. Errolda hori jakinarazteko eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, errolda jendaurrean jarriko da 15 egunez Udaleko iragarki oholean; eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta ediktu bidez, ohi den eran, zabalduko da herrian.

2. Jende aurreko erakustaldia amaitutakoan, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko erabakiak hartuko ditu Udalak eta Errolda behin betiko onartu ondoren, kobrentzak egiteko erabiliko du.

10. *artikulua. Bajak.*

Bajak, beranduenez ere, zergaldi bakoitzeko azken lanegunean jakinarazi behar dira, hurrengo aldian eragina izan dezaten. Baldintza hau betetzen ez dutenek tasa ordaindu behar dute derrigorrez.

Komertzio, ostalaritza, industria eta zerbitzuei dagokienez, jardueraren baja eguntzat Udalean baja jakinarazten den eguna hartuko da.

11. *artikulua. Altak.*

Ekitaldiaren barruan egindako altek, zerga-betebeharra sortzen den egunetik aurrera izango dute eragina. Administrazioak subjektu pasiboei jakinarazi behar die erroldako altari dagokion kitapena, honako puntuak zehatztuz:

a) Kitapenaren oinarrizko elementuak.

b) Aurka egiteko erabil daitezkeen bide nagusiak, bertan adieraziz zein epetan eta zein erakundetan aurkeztu.

c) Zerga ordaintzeko lekuak, epeak eta erak.

12. *artikulua. Sortzapena.*

Sei hilero kobratuko da tasa, aldiaren hasieran; eta erreziboa osoa izango da, zati-zeko aukerarik gabe, baldin eta zerga-betebeharra aldi laburrago baterako izan ez bada. Aldiak, urtarriletik ekainera eta uztailletik abendura izango dira; eta kobratzeko garaiak, urtarrila-otsaila eta uztaila-iraila.

- **Honako hau esan behar du:**

8. artikulua. Tarifikak, baliokidetasunak eta irizpideak

Zergadun bakoitzak bere kategoriari dagokion tarifaren tasa ordaindu behar du. Tarifa bakoitzaren tasak ondoren adierazten den baliokidetasuna dauka 1.1 tarifarekiko.

KATEGORIA	TARIFA	LANGILE KOPURUA	BALIO-KIDETA-SUNA	SEIHILEKO TASA €
1. Etxebizitzak				
	1.1 Arrunta	-	1,00	52,98
	1.2 Ekarpen guneko erabil-tzailea.	-	0,75	39,74
	1.3 Ekarpen guneko erabil-tzaile konpostatzalea.	-	0,50	26,49
	1.4 Organikoa kudeatzen duten guneak	-	0,4	21,20
2. Biltegi eta komertzioak	2.1	≤2	3,18	168,48
	2.2	≤5	5,30	280,79
	2.3	≤15	10,60	561,58
	2.4	>15	15,90	842,37
3. Ostalaritza, elikagaiak eta zerbitzuak	3.1	≤2	4,24	224,63
	3.2	≤5	7,95	421,18
	3.3	≤15	13,25	701,97
	3.4	>15	18,55	983,10
4. Industria jarduerak eta zerbitzuak	4.0	≤2	3,18	168,47
	4.1	≤5	8,48	449,25
	4.2	≤15	15,90	842,37
	4.3	≤50	21,20	1.123,16
	4.4	≤100	26,50	1.403,95
	4.5	≤500	31,80	1.684,74
	4.6	>500	37,10	1.965,53
5. Aurrez hitzartutako zerbitzuak	5.1	-	21,20	1.123,15

Tasa horiek aplikatzeko honako irizpideak hartuko dira kontuan:

1.- Ez dira zergaduntzat hartuko ere egoitza soziala Eskoriatzan izan eta erakundearen helburuak benetan eta modu eragingarrian Eskoriatzan garatzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeak eta horiekin parekatu daitezkeen irabazi asmorik gabeko elkartea.

2.-Etxebizitzak (1 kategoria). Lau tarifa bereizten dira:

1.1. Arrunta. Tarifa honetan sartzen dira hiri lur edo lur urbanizagarrian koka-tutako etxebizitzak.

1.2 Organikoa kudeatzen duten guneak. Tarifa honetan sartzen dira organikoa kudeatzea erabaki duten guneetako lurzoruetako subjektu pasiboak.

1.3. Ekarpen guneko erabiltzailea. Tarifa honetan sartzen dira ekarpen gunetara hondakinak eramatzen dituzten subjektu pasiboak.

1.4 Ekarpen guneko erabiltzaile konpostatzailea. Tarifa honetan sartzen dira konposta egiten duten ekarpen gunetara hondakinak eramango dituzten subjektu pasiboak.

3.-Hiri hondakinak jasotzeko maiztasunak edo asteko bilketa kopuruak ez du loturarik izango erabiltzaileak ordaindu behar duen tasarekin.

4.- Eraikina edo etxebizitza hutsik egoteak ez du esan nahi jabeak tasa ordaindu behar ez duenik.

5.- Aisialdirako elkartea. Baliokidetasun hau daukate:

- a) ≤ 50 sozio, 3.1 tarifaren baliokidea.
- b) > 50 sozio, 3.2 tarifaren baliokidea.

6.- Jarduera profesional edo komertzialak eta zerbitzuetakoak, baldin eta inoren bizileku diren etxebizitza edo lokaletan gauzatzen badira: ile-apaindegia, kontsultak, etab. Tarifa zein den ezartzeko, kontuan hartuko da alde batetik etxebizitza, eta bestetik bertan gauzatzen den jarduera; izan ere, jarduera profesionalak eta etxebizitzak, bakoitzak bere hondakinak sortzen ditu eta bakoitzari bere tasa ezarri behar zaio.

7.- Biltegietarako lokalak. Zergaduna, biltegi horretan merkataritza edo industria jarduera gauzatzen duena izango da. Jarduera beste leku baten gauzatzen badu eta lokala materiala gordetzeko bakarrik erabiltzen badu, berriz, ez da zergaduntzat hartuko, nahiz eta zergadunen erroldan egon.

8.- Gurtzarako lekuak eta komentuak 2.1.tarifan sartuko dira.

9.- Eskolak, ikastolak, akademiak, ikastetxeak, haurtzaindegia, etab. 2. kategorian sartuko dira, eta dagokien tarifa aplikatuko zaie, irakasle kopuruaren arabera.

10.- Zaharren egoitzak eta ikasleen egoitzak 2. kategorian sartuko dira eta dagokien tarifa ezarriko zaie, ohe kopuruaren arabera.

11.- Auzo-etxeei edo auzo lokalei 1.1 tarifa ezarriko zaie aurrez herri onurakotzat izendatzen badira.

12.- Familiako txokoei 1.1 tarifa ezarriko zaie.

9. artikulua. Errolda.

1. Errolda sei hilero egingo da eta bertan agertuko dira zergadunak zeintzuk diren eta ordenantza honen arabera zein kuota likidatuko zaien. Errolda hori jakinarazteko eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko, errolda jendaurrean jarriko da 15 egunez Udaleko iragarki oholean; eta aldi berean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta ediktu bidez, ohi den eran, zabalduko da herrian.

2. Jende aurreko erakustaldia amaitutakoan, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko erabakiak hartuko ditu Udalak eta Errolda behin betiko onartu ondoren, kobrentzak egiteko erabiliko du.

10. artikulua. Bajak.

Bajak, beranduenez ere, zergaldi bakoitzeko azken lanegunean jakinarazi behar dira, hurrengo aldian eragina izan dezaten. Baldintza hau betetzen ez dutenek tasa ordaindu behar dute derrigorrez.

Komertzio, ostalaritza, industria eta zerbitzuei dagokienez, jardueraren baja eguntzat Udalean baja jakinarazten den eguna hartuko da.

11. artikulua. Altak.

Ekitaldiaren barruan egindako altek, zerga-betebeharra sortzen den egunetik aurrera izango dute eragina. Administrazioak subjektu pasiboei jakinarazi behar die erroldako altari dagokion kitapena, honako puntuak zehatztuz:

- a) Kitapenaren oinarrizko elementuak.
- b) Aurka egiteko erabil daitezkeen bide nagusiak, bertan adieraziz zein epetan eta zein erakundetan aurkeztu.
- c) Zerga ordaintzeko lekuak, epeak eta erak.

12. artikulua. Sortzapena.

Sei hilero kobratuko da tasa, aldiaren hasieran; eta erreziboa osoa izango da, zati-tzeko aukerarik gabe, baldin eta zerga-betebeharra aldi laburrago baterako izan ez bada. Aldiak, urtarriletik ekainera eta uztailetik abendura izango dira; eta kobratzeko garaiak, urtarria-otsaila eta uztaila-iraila.

BIGARRENA: Erabakia jendaurrean jartzea 30 egunez, nahi duenak erreklamazioak eta oharak egin ditzan.

HIRUGARRENA: Aldatzeko erabakia behin betikoa izango da, berriro erabakirik hartu gabe, jendaurrean jarritako epean erreklamaziorik egiten ez bada.

5.- SASFAL DESAGERTUTA, LANGILE FUNTZIONARIOENTZAKO OSASUN-LAGUNTZA PUBLIKOA ESKATZEKO ERABAKIA.

Toki Administrazioen Funtzionarioen Gizarte Segurantzako Erregimen Berezia Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorean txertatzeko apirilaren 2ko 480/1993 Errege Dekretu bidez sartu ziren Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorean Eskoriatzako Udaleko funtzionarioak.

Zehazki, 1. artikuluan ezartzen zuen 1993ko martxoaren 31n Toki Administrazioen Funtzionarioen Gizarte Segurantzako Erregimen Bereziaren aplikazio eremuan sartutako langile aktibo eta pasiboa Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorean sartuko zirela 1993ko apirilaren 1ean hasitako eraginekin.

Hala ere, aipatutako arauko 5. xedapen iragankorrak erakunde pribatuak ematen zuen osasun laguntza mantentzeko aukera aurreikusten zuen, baina, horretarako, aldez aurretik sindikatu ordezkagarrienei kontsulta egin behar zitzainen eta erakundearrekin hitzartu 1993ko apirilaren 30a baino lehen.

Gipuzkoako Foru Aldundian Gipuzkoako Toki eta Foru Administrazioen Funtzionarioen Osasun Laguntzako Zerbitzua (OLAZ) zegoen, eta bere helburua zen medikuntza orokorra, medikuntza eta kirurgia espezialitatea, eta zerbitzu lagungarri eta osagarriak eskaintzea bertara atxikitako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldundi, Bazaar Nagusi eta udalako funtzionarioei.

Eskoriatzako Udalak osasun laguntza funtzionarioak txertatzeko garaian ematen zuen moduan ematen jarraitzea erabaki zuen, 480/1993 Errege Dekretuko bosgarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

Gaur egun, Foru Gobernuko Kontseiluak, 2013ko abenduaren 12an hartutako era-

bakiz -kontuan izanik Foru Aldundiak OLAZeri ordaintzen zion kuota nabarmen han-diagoa zela Gizarte Segurantzari egiten zaizkion kotizazioetan aipatu langileengatik aplikatzen den koeficiente murriztaileagatik berreskuratzen duena baino, eta beraz, ez dela betetzen zerbitzuarri eusteko jarri ziren baldintzak-, zerbitzua kentzeko foru arauaren projektua onartu zuen.

Proiektua Gipuzkoako Batzar Nagusietara bidali ondoren, onartu egin da otsailaren 6ko 5/2014 Foru Arauaren bidez Gipuzkoako Toki eta Foru Administrazioko Funtzi-onarioen Osasun Laguntzako Zerbitzua (OLAZ) kendu eta Administrazioko Organo Berezia desegitea.

Zerbitzua deseginda aipatutako otsailaren 6ko 5/2014 Foru Arauaren bidez, bidez-koa da OLAZ bitartez osasun laguntza jaso duten funtzionarioentzat osasun lagun-tza publikoa eskatzea.

Gainera, langile talde hori Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorean sartu behar da beren kotizazioko kontuetatik osasun laguntzari dagokion koeficiente murriztailea kenduta.

Horiek horrela, eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak aho batez honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Eusko Jaurlartzako Osasun Sailari eskatzea 2014ko martxoaren 1eko ondorioekin osasun laguntza publikoa eman diezaien orain arte osasun lagun-tza Gipuzkoako Foru eta Udal Administrazioko Funtzionarioen Osasun Laguntza Zerbitzuaren (OLAZ) bidez jaso duten Eskoriatzako Udaleko funtzionarioei.

Bigarrena.- Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrari eskatzea aipatutako funtzionario taldearen kotizazioko kontuetatik osasun laguntzari dagokion koeficiente murriztailea kentzeko 2014ko martxoaren 1eko ondorioekin.

Hirugarrena.- Ahalmena ematea Alkate-Udalburuari erabaki hau eraginkorra izan dadin beharrezko jarduerak eta agiri publiko nahiz pribatuak egiteko.

6.- GAZTAÑADUIKO UDAL LOKALAK ALOKATZEKO ESPEDIENTEA HASTEA. BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIA ONARTZEA.

Alkateak lokala alokatzeko proposamena eta alokairua arautuko duten baldintza orokrak osoko bilkurara ekartzearen arrazoiak azaldu ditu

Merino jaunak eta Urrutia jaunak galdeitu dute ea alokatu gura den lokaletako bat ez ote dagoen Zubiateko labeari lotuta, Eusko Jaurlartzak emandako diru laguntza batekin eroski baitzen.

Idazkariak jakinarazi du berak ez dakiela inolako erabakirik dagoenik lokal hori museoaren zerbitzura lotuta gelditzeko (Zubiate labea) eta jabari publikoko ondasun bezala kalifikatzeko, inventarioan ondare ondasun bezala kalifikatuta dagoela.

Aurrez esandako argituta, bozkatu egin da. Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA. Ondorengo udal lokalak lehiaketa publiko bidez alokatzeko espedienteari hasiera ematea.

1. LOKALA

ETXABEKO 3. MERKATARITZA-LOKALA. 171,69 m2-ko azalera du, eta honako mugak: iparraldean, argi, gas eta ur kontagailuen gelak eta 27. eskapea; hegoaldean, Gaztañadui kalera doan oinezkoentzako bidea; ekialdean, 1. lokala, zeramika labea dagoena; eta mendebaldean, ikastetxetik gelditzen den lurzatitik bereizten duen oinezkoentzako bidea.

2. LOKALA

GAZTAÑADUI 27 ETXABEKO 2. MERKATARITZA-LOKALA. 152,49 m2-ko azalera du, eta honako mugak: iparraldean, landarezko plataforma horizontalaren eta Deba ibaiaren harri-lubetaren ondoko oinezkoentzako eta ibilgailuentzako bidea; hegoaldean eta ekialdean, Gaztañadui kalerako oinezkoentzako bidea; eta mendebaldean, 1. lokala, zeramika labea dagoena.

Lokalak banatzeko proposamenak onartuko dira, eta baita horiengatik lehiatzea ere, betiere, proposatutako banaketak Eskoriatzan indarrean dauden planeamenduko arau subsidiarioetako hiri lurretan eta lurzoru urbanizagarrietan aplikagarri diren ordenantza erregulatzaileetako hirugarren izenburuko 2. atalburuko "Baimenduriko beste erabilera batzuk helburu dituzten Behe-Oineko lokalei aplikatu beharreko baldintzak" izeneko 3.13 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen baldin baditu, eta hala badagokio, arlo horretan aplikagarri den araudia.

BIGARRENA. Erabaki honetan deskribatutako ondasuna lehiaketa bidez alokatzea arautuko duen administrazio baldintza agiria onartzea.

Lehiaketa-tipoa gorantz hobetu ahal izango da, 60,42 euro m2-ko eta urteko errentatik abiatuta, BEZ edo bestelako zergarik gabe. Kontratuaren iraupena 10 urtekoa izango da, eta 5 urteko beste bi alditan luzatu ahal izango da.

Kontratazio Mahaia hauek osatuko dute:

- Mahaiburua: Beñat Herce, alkatea
- Mahaikideak: Juan Luis Merino, zinegotzia; Arantza Iregi, zinegotzia; María Pía Urrutia, udal arkitekto teknikoa eta Edurne Iturbe, idazkari-kontuhartzalea.
- Idazkaria: Edurne Iturbe

HIRUGARRENA.- Lehiaketaren iragarkia GAOn, kontratatzailearen profilean eta Udal-letxeiko iragarki oholean jartzea, gura duenak proposamenak aurkeztu ditzan hamabost eguneko epean.

7.- UDAL HONEN BETEBEHARRAK ORDAINTZEKO AURREIKUSITAKO EPEAK BETETZEARI BURUZKO HIRUHILEKO TXOSTENA (merkataritza

eraqiketetan berandutzaren aurka borroka egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldarazten duen uztailaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua).

Merkataritza-eragiketetan sortzen den berankortasunari aurre egiteko neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen duen uztailaren 5eko 15/2010 Legeko 4. eta 5. artikuluetan ezarritakoa betez, 2013ko 4. hiruhilekoari dagozkion Udal honek hartutako obligazioak ordaintzeko epeak betetzeari buruz diruzaintzak egindako txostenaren berri eman zaio Udalbatzarrari.

Udalbatzarrak, legez osatzen duten 11 zinegotzitik 10 bertan direlarik, jasotzat jo du informazio hori.

8.- KIROL ZERBITZUAK ESLEITZEKO 2013KO URRIAREN 29AN EGIN-DAKO UDALBATZARRAREN ERABAKIZ HASITAKO PROZEDURA BER-TAN BEHERA UZTEKO ERABAKIA.

Bertaratutako udalatzarkide guztiak ezagutzen dute Kultura batzorde informatzaileak egindako diktamena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, Ezpeleta jaunak proposamen hori egiteko arrazoia azaldu ditu.

Ondoren, honako hauek hitz egin dute:

- * Merino jaunak eskatu du hemendik aurrera diktamenak itzulita bidaltzeko.
- * Urrutia jaunak esan du lehendabizi eta xehetasun bezala, adierazi gura duela beste batzuetan batzordeburuak edo batzordeko idazkariak sinatzen dituztela diktamenak. Hori esanda, adierazi du azken hilabeteetan, ia hilabete batean bai eta hurrengoan ere bai, kiroldegia-rekin eta kirol zerbitzuekin zerikusia duten gaiak ekartzen direla Udalbatzarrera, eta uste duela lardaskeria ugari egiten ari direla. Aipatu du bere garaian aurrekontu faltarekin zerikusia zuen zerbait ekarri zela Udalbatzarrera, eta uste duela oraingoan ere horrelako zerbait dela. Zalantzan jarri ditu interpretazioa dela-eta esaten diren arazoak egon direnik, orain arte ez direnean egon, eta esan du berari benetan arduratzen diona aurrekontu izendapenik ez dagoela aitortzea dela. Galdera hau egin du: aurrekontu izendapenarekin edo behar besteko aurrekontu izendapenik gabe, zer egin da? Arraroa egiten zaio arrazoi hori alegatzea, gobernu taldeak beharrezko tresnak dituenean diru izendapen hori izateko, esate baterako, kreditu transferentziak. Bere txanda amaitzeko harridura azaldu du ez delako baldintza orria zuenduta ekarri eta ustez egiten ari diren akats pilarengatik, eta esan du akatsak egiten ari direnaren sentsazioa teknikari bat dugunetik duela, eta lardaskeriatik lardaskeriara gabiltzala.

Ezpeleta jaunak berriz esan du akats bat egon dela, eta horren aurrean ez duela gehiago esaterik.

Alkateak gehitu du aurrekontu izendapenik ez dela egongo lehiaketa prezioari egin dakizkiokeen bi interpretazioetako bat egiten bada, hain justu ere, zuzena ez dena.

Hitz egiteko txandak amaitu dira.

Procedura honela izan zen:

2013ko urriaren 29an egindako osoko bilkuran, Eskoriatzan kirol zerbitzuak emateko kontratua esleitzeko espedientea hastea erabaki zuen Udalbatzarrak.

Lehiaketa Udal honetako kontratatzalearen profilean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2013ko azaroaren 27an.

Lehiaketara ondorengo lehiatzaileak aurkeztu ziren:

- GOIENA SPORT
- ZERKI KIROL ZERBITZUAK
- JOSU LARREATEGI
- E-GOITEK KIROL ZERBITZUAK

2014ko urtarrilaren 23an “B” gutun-azalak ireki ziren.

Rosa Lasagabaster kirol aholkulariak 2014ko otsailaren 18an egindako txostenarengatik jakin da espedienteko baldintza agiriak akatsak dituela kontratuaren prezioa zehazterakoan.

Kontuan hartu beharrekoak:

1.- Tramitazioa arautzeko onartutako baldintzetan modu nahasgarrian jasotzen da kontrataazioaren prezioa. “Beste jarduera edo kirol ikastaro batzuei” buruzko lizitazio tipoari emandako idazkerak zalantzarako bidea eman dezake eta interpretazio bat baino gehiago egin daiteke.

2.- Egin daitezkeen edozein interpretaziorekin ez da bermatzen kontratu guztietan egon behar den oreka ekonomikoa eta finantzarioa, hau da, interpretazioetako batekin kontratua inolako arrazoirik gabe garestia izan daiteke udalarentzat, eta bestearekin, garestia esleipenduna izan daitekeenarentzat.

3.- SPKLTB-eko 87. artikuluan ezarritakoaren arabera, kontratacio organoek, kontratua benetan bete ahal izateko, prezioa egokia izatea zaindu beharko dute, eta horretarako, lehiaketako aurrekontua finkatzerakoan zuzen kalkulatu beharko dute prezioa merkatuko prezio orokorrari begiratuz. Begi bistakoa da artikulu horretako araua ez dela errespetatu.

4.- Egindako akatsa kontratua prestatzeko edo esleipen procedura arautzeko arauei egindako arau-hauste zuzendu ezina izan daiteke, eta horrela izanik, lehiaketa normal burutzea galaraziko luke.

Aurrez esandakoa kontuan izanik, Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta Merino eta Urrutia jaunak abstentuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

- 1.- Udalbatzarrak 2013ko urriaren 29an hartutako erabakiz kirol zerbitzuak kontrata-tzeko hasitako lehiaketa prozedura bertan behera uztea.
- 2.- Lehiaketa bertan behera uzteko erabakia lehiaketan parte hartu duten lehiatzaleei jakinaraztea.

9.- ESKORIATZAKO UDAL TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUTAKO MORIZIA SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNARI BURUZ ETA HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEARI BURUZ INDARREAN DAGOEN LEGEDIA ESPAINIAKO GOBERNUAK LEGE ORGANIKOAREN AURREKOPROIEKTU BIDEZ BERRAZTERTU NAHI DUELA-ETA.

Cantero jaunak, bere garaian mozioa aurkeztu zuen zinegotziak, mozioa kendu du, azken bilkuran Udalbatzarrak gai berari buruz beste mozio bat onartu zuelako.

10.- JUAN LUIS MERINO ZINEGOTZIAK EGINDAKO PROPOSAMENA TOKI AUTONOMIA BABESTEKO GATAZKA AURKEZTEKO.

Hitza eman ondoren, Merino jaunak Udalbatzarrari toki autonomia babesteko gatazka aurkez-teko proposamena egiteko arrazoia azaldu ditu.

Jarraian, honako hauek hitz egin dute:

Alkate jauna: esan du alde bozkatuko dutela, lege horri buruz Udalbatzarrean aurkeztu zen mozioa bati beraiek emandako botoarekin koherente izateko.

Cantero jauna: esan du berak ere alde bozkatuko duela alkateak aipatutako mozioari buruz bere taldeak emandako botoarekin koherente izateko ere, eta azken finean, gai honek ideologia politikoak gainditzen dituelako eta udal sistemaren muinari eragiten diolako.

Urrutia jauna: esaten du abstentu egingo dela, gustatzen zaion legea ez bada ere; aldaketak egon direla mozioa eztaba idatzi zenetik, eta orain legeak babes klausula bat jasotzen duela, eta horren arabera, ez dela aplikatuko hemen, ez Euskadin ez Nafarroan.

Eztabaidea amaituta eta Juan Luis Merino Sanabria zinegotzi jaunak egiten duen proposamena ikusita, Toki Erakundeen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudiko 97. artikuluan ezarritakoaren babesean, Udalbatzarrak, Urrutia

jauna abstentuta eta bertaratutako udalbatzar guztiekin alde bozkatuta, legezko gehiengo absolutuaren quoruma osatzen dutena, honako hau ERABAKI DU:

LEHENA.- Tokiko autonomiaren aldeko gatazka formalizatzeko izapidea hastea Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerako 2013ko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen (312. EAO, 2013ko abenduaren 30eko) lehen eta bigarren artikuluaren eta eragindako gainerako xedapenen aurka. Hori guztiori, erantsitako testuaren arabera, Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoko 75 bis eta ondorengo artikuluetan aipatu bezala.

BIGARRENA.- Helburu horretarako, eta Konstituzio Auzitegiaren urriaren 3ko 2/1979 Lege Organikoko 75 3 hiru artikuluaren ezarritakoa betez, Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren bidez eta biztanle gehien duen toki erakundeak eskatuta, Estatu Kontseiluaren Irizpena eskatzea (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legeko 48. artikula) eta eskaera hori egiteko beharrezko ordezkaritza ematea biztanle gehien duen toki erakundeari.

HIRUGARRENA.- Lehen eta bigarren erabakiak betetzeko beharrezko izapideak egiteko agintzea eta horretarako ahalmenak ematea Alkateari, eta berariaz, Virginia Aragon Segura prokuradore andreatsi (Madrileko prokuradoreen Elkargoko 1040. kide zenbakia) zuzenbidean behar besteko ahalmen-eskritura emateko Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkaritzan, eta modu solidarioan, tokiko autonomia gordetzeko gatazka jartzeko Toki-administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasunerako 2013ko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen (312. EAO, 2013ko abenduaren 30eko) aurka, eta gatazka horri jarraipena ematea izapide eta instantzia guztietan epai irmoa eman eta hori bete arte.

11.- "BEHEKO ERROTA" MUSIKA ESKOLAK AURKEZTUTAKO ERA-KUNDE ADIERAZPEN PROPOSAMENA EUSKO JAURLARITZAKO HEZ-KUNTZA ETA HIZKUNTZ POLITIKA SAILARI EUSKO LEGBILTZARRAK 2013KO OTSAILAREN 28AN ONARTUTAKO ERDIBIDEKO ZUZENKETA BETETZEKO ESKATZEKO.

Petalanda jaunak Beheko Errota Musika Eskolak eskatuta aurkeztu den moziaren xedapen zatia irakurri du. Hona hemen testua osorik:

Musika eskolak, heziketa sistematiko eta egonkor baten bidez, bai ume, gazte zein nagusien heziketarako, funtsezko osagarria edo hobekuntza eskaintzen dituzten hezkuntza-zentroak dira. Hauen helbururik nagusiena zaleen heziketa eta instrumentu eta ahots-taldeen sustapena da, nahi duten pertsona guztiek musika-praktikan has daitezen eta, sentikortasun eta adiera estetikoaren garapena arte-hezkuntzaren atala bezala.

Guztioan hezkuntzan ezinbesteko lana betetzen dute, haien plan pedagogikoaren barruan adin, gaitasun eta musika-estilo guztietaera egokitutako heziketa-eskaintzak egiten dituzte, eta, gure herriaren historia eta musika-ondarearen ezagutza eta zabalkuntzarako gune ere bihurtu dira. Eskolek gizartearekin duten konpromisoa aitortu behar dugu, baita gure udalerriek, horiek mantentzeko egiten duten lana ere, Musika Eskolen garapenean laguntzen baitute, etorkizunari begira hezkuntza eta kultura arloko proposamen bezala balioa emanet.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak jasotzen zuen bezala, Musika Eskolak Euskadiko arte hezkuntzaren erreferentziarik garrantzitsuena izan dira eta dira, beren ohiko ezarpenagatik, ekintza honek gizartean sortarazi duen erakargarritasunagatik eta, bereziki, tokia administrazioek(udalek) izan duten parte-hartzeagatik. Daukaten garrantzi sozialarekin (35.000 ikasle baino gehiago) eta udalen ahaleginekin bat etortzeko, Hezkuntza Sailak bere plangintza eta finantzaketen arreta eta baliabide bereziak eskaini dizkie.

Ildo honetan, 2006ko urriaren 11-n, Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza eta Kultura-batzordeak, aho batez legezkoa ez den proposamen bat onartu zuen. Bertan hurrengoa proposatzen zen:

"Bat. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailari Euskal Autonomia Erkidegoan musika eskolei buruzko ikerketa orokorra martxan jartzeko, koordinatzeko eta, kasua bada, idazteko eskatzen dio.

Bi. Eusko Legebiltzarrak Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, Europan eredu egokia bezala ezarrita dagoen %33ko finantzaketa bost urteko epean lortzeko asmotan, musika eskolen diru-laguntzetarako (hauen finantzaketan toki-administrazioak parte hartzen dute) aurrekontu-zuzkidura, mailaz-maila, urte anitzeko plan batean handiagotzea eskatzen dio.

Hiru. Nolanahi ere, Sail honek oraingo aurrekontuetan onartuta eta ekitaldiaren amaieran burutu barik egon litekeen gastuaren atala musika eskolei zuzentzen den kontu-saila handiagotzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu."

Halaber, 2013ko otsailaren 28an, Legebiltzarrak aho batez hurrengo legez-koa ez den proposamena onartu zuen:

"Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari eskatzen dio musika eskolentzat zehaztu gabeko epean %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko ekintza-plana ezartzea, mailaz-maila erabilgarri diren baliabideen esparruan aurratzeko, eta, Euskal Herriko Musika Eskolen elkartarekin, bere jardueraren hobekuntza eta eguneratzean lan egitea, musika-hezkuntzako arloaren sendotzea lortzeko asmotan".

Azken urte hauetan, Sailaren aldetik musika eskolen finantzaketak ia 2.500,00 €-ko jaitsiera garrantzitsua jasan du. Kasu gehienetan, toki-administrazioek bereganatu dute jaitsiera hau. Gaur egun, Eusko Jaurlaritzak emandako finantzaketa %14ko da soilik, hasieratik guztiok defendatutako europar eredutik oso urrun.

Horregatik guztietatik, Beheko Errota Musika Eskolak, Udal Batzarrari hurrengo era-kunde-adierazpena aurkezten dio:

ERAKUNDE-ADIERAZPENA

Eskoriatzako Udalak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari, musika eskolentzat %33ko finantzaketa egonkorra lortzeko asmotan, Eusko Legebiltzarrak ahi batez 2013ko otsailaren 28an onartutako transakzio-zuzenketa betetzea eta ekintza-plana ezartzen dio.

Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea abstentuta eta bertaratutako gainerako udal-batzarkideek alde bozkatuta, mozioa onartu da.

Urrutia jaunak bere botoa justifikatzeko esan du botoa ezin dela baiezkoa besterik izan, kontuan hartzen baldin bada Legebiltzarrak aho batez hartutako erabaki bat dela. Gaineratu du harremanetan jarri zela Eusko Jaurlaritzako sailarekin eta bertatik jasotako informazioaren berri eman du, laburtuz, honako hau:

- Saila musika eskolekin lanean ari da.
- Finkatutako epea bi urtekoa da.
- Ez dakigula zenbatekoa den % 100a, eta beraz, % 33ko portzentajea kuantifikatu gabe dagoela.
- Asmoa dela finantzazioa herenka finkatzea, baina, sailak diagnostiko bat egin gura duela eskola bakoitzaren errealtitate soziala ezagutzeko eta diru publikoaren banaketa ahalik eta zuzena izan dadin.

12.- EZKER ANITZA-IU-REN ESKARIZ AURKEZTUTAKO MOZIOA
"2014KO MARTXOAREN 8A, EMAKUMEEN ESKUBIDEEN AURKAKO
ERASOEN KONTRA".

Hitza eman ondoren, Merino jaunak mozioaren xedapena irakurri du.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Estamos asistiendo a uno de los momentos históricos de mayor ataque a los derechos de las mujeres. La derecha está agrediendo a los pilares más básicos de la democracia, como es la aspiración a la que tenemos derecho todas las personas a la libertad, a la autonomía personal, al acceso a los recursos y a la igualdad entre todos los seres humanos.

Esta grave regresión se manifiesta de manera categórica respecto a los derechos humanos de las mujeres, fruto del reforzamiento de las posiciones más retrógradas del sistema patriarcal, que, con la excusa de la crisis económica, ha visto las posibilidades abiertas para deconstruir todo lo conseguido.

El derecho de las mujeres a elegir sobre su maternidad, es decir, si quieren o no ser madres, es un derecho rotundo que debe estar presente en cualquier circunstancia. Es un derecho fundamental y, como tal, no puede ser objeto de intercambio con los estamentos religiosos y sociales más reaccionarios.

Las normas segregadoras y sexistas como la de reforma laboral y la reciente ley de educación que se están adoptado, junto con los recortes en sanidad y en la asistencia en la dependencia, la provisionalidad en los empleos, la privatización de lo público... son medidas que están produciendo un impacto de género que está generando el incremento de la feminización de la pobreza y la intensificación de los valores represores de la autonomía de las mujeres.

La asignatura de religión en la escuela pública y la exclusión de la educación sexual y reproductiva de ella, no sólo es consecuencia de la injerencia del clero heredero del franquismo en las decisiones gubernamentales, sino que pretenden instaurar el modelo ya caducado, de mujeres obedientes y sumisas.

Por lo expuesto, el Pleno del Ayuntamiento/Diputación de **ESKORIATZA** adopta los siguientes **ACUERDOS:**

1º) Elevar al Gobierno de España la solicitud/exigencia de que no se atente contra los derechos fundamentales de las mujeres y **que no tenga lugar la tramitación del proyecto de ley contra el aborto.**

2º) Que **se amplíen los derechos** reconocidos en el texto vigente para que el aborto deje de ser un delito y pueda practicarse libremente en la sanidad pública en todo el territorio español.

3º) El Pleno del Ayuntamiento se adhiere a todas las manifestaciones del movimiento feminista y organizaciones de mujeres, que en reivindicación de los acuerdos suscritos se convoquen.

4º) El Ayuntamiento se compromete a potenciar los valores de igualdad real, poniendo para ello todos los medios a su alcance, como es la defensa de la sanidad y la educación públicas y laicas y planes de empleo y formación igualitarios.

5º) De este acuerdo de dará traslado al Gobierno de España y a los Grupos Parlamentarios del Congreso de Diputados

En Eskoriatza, a 20 de Febrero de 2014

Fdo.: Portavoz del Grupo Municipal de Ezker Anitta- Izquierda Unida

Juan Luis Merino Sanabria

Irakurketa amaituta, Iregi andreak jakinarazi du Udaleko gizarte zerbitzuetako arlotik testu zirriborro bat prestatu zela eta Alkateari eman zitzaiola Bozeramaleen Juntan eztabaidatu eta “erakunde adierazpen” bezala onartzeko.

Alkateak jakinarazi du ez dela inolako erakunde adierazpenik egin horrek udal talde guztiak aho batez onartzea eskatzen duelako, eta aho batez onartu ahal izateko helburu horrekin deitutako bozeramaleen juntara eterri behar dela, eta talde guztiak bozeramaleak eterri ez zirenez, ezin izan dela erakunde adierazpenik egin. Esan du beste aukera bat zela testua mozio bezala ekartzea, baina, Ezker Anitzakoa aurkez-tuta zegoenez, besterik ez aurkeztea erabaki zela.

Urrutia jaunak esan du faltan botatzen duela batzordetik bertatik ekarritako testu bat; aurkezten den mozioak, Ezker Anitzakoak, joera alderdikoak dituelako. Bere txanda amaitzeko esan du alde bozkatuko duela, martxoaren 8ari buruz aurkezten den mozio bakarra delako, nahiz eta zehatz-mehatz aztertzen hasiz gero aldatuko lituzkeen gau-zak izan.

Eztabaidea amaituta, bozketa egin da.

Madinabeitia jauna eta Arkarazo andrea abstentuta, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

13.- GALDE-ESKEAK.

- Merino jaunak.

Erregistro zibila pribatizatzearen aurkako mozioa.

Merino jaunak jakinarazi du hurrengo osoko bilkurarako erregistro zibila pribatizatzearen aurkako mozioa proposatuko duela.

- Urrutia jaunak.

Foru Fondotik itzuli beharreko kopurua.

Urrutia jaunak galdeitu du ea zenbat itzuli behar den 2013an kobraututakotik.

Alkateak jakinarazi du 31.000 euro izango direla, gordetako gainerako kopurua (44.000 euro) gerakinean gelditzen dela, itzuli beharko zena handiagoa izango zela aurreikusita baitzegoan.

Apotzagako hondakindegian lurra botatzea.

Urrutia jaunak esan du entzun duela Deskarga mendateko (Antzuola) obretako lurrik Apotzagako hondakindegian botatzen ari direla, eta horren aurrean galdeitu du ea ezer dakigun ofizialki.

Alkateak erantzun du ofizialki ez dakiela ezer. Badakiela bere garaian, obrak hasi zirenean, ikusi zela Antzuolako hondakindegia beteta zegoela, eta Foru Aldundiari proposatu zitzaiola Deskargako obretako lurrik gertuko beste hondakindegia batean botatzea aztertzeko.

Urrutia jaunak galdeitu du, ofizialki ezer ez jakin arren, Udalak nolabaiteko jarrera hartu behar ote duen.

Madinabeitia jaunak erantzutio Udalak berez ez duela zereginik, ez dutela Udal honen baimenik behar, baina, bere garaian eskatu zitzaiela ingurumenarekiko ahalik eta errespetu handienarekin aritzeko.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 20:10ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

2014-02-25ean EGINDAKO OHIKO OSOKO
BILKURA

SESIÓN ORDINARIA DEL PLENO DE LA
CORPORACIÓN. Día 25-02-2014

BERTARATUAk- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beñat Herce LECETA

Zinegotziak

Maria Arantzazu Iregui Villar
Jose Maria Herce Isasmendi
Igor Ezpeleta Oregi
Jose Angel Petralanda Gil
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
Rosa Arkarazo Arkarazo
Jose Luis Cantero Morcillo
Juan Luis Merino Sanabria.

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamalauko otsailaren 25ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Landa andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 25 de febrero de 2014 , en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste la Sra. Landa.

3. APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión de fecha 29/10/2013.

4. COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 20 de febrero de 2014 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

A continuación se da cuenta de las siguientes resoluciones relativas a recursos interpuestos:

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

Nº: B 14/00061

FECHA: 31/01/2014

ASUNTO: COMPARECENCIA EN PROCEDIMIENTO

EXPEDIENTE: 2014IGAP0006

INTERESADO: JUZGADO DE LO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO Nº 1 - DONOSTIA

VIVIENDA Y SUELO DE EUSKADI S.A.-EUSKADIKO ETXEBIZITZA ETA LURRA E.A. .VISESA- ha interpuerto recurso contencioso administrativo contra la Resolución de la Alcaldía Nº 181, de fecha 5 de marzo de 2013, por la que se desestimaba la solicitud de considerar como carga de urbanización de la A.I.U. "Santa Marina" los gastos de contención del terreno en efectuados en la parcela propiedad de VISESA sita en A.I.U. "Santa Marina"

De conformidad con lo establecido en los art. 48 y 49 de la L.J.C.A.

R E S U E L V O

1º.- Remitir al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 1 de Donostia-San Sebastián, copia autentificada del expediente completo relativo a dicho acuerdo.

2º.- Comparecer en dicho Recurso Contencioso Administrativo a través de la Procuradora D. MIGUEL ANTEL OTEIZA ISO y bajo la dirección del Letrado D. JUAN RAMON UGALDE EGAÑA.

3º.- A los efectos previstos en el art. 49.1 de la L.J.C.A. notificar el presente acuerdo a todos los interesados en el expediente y emplazarlos para que puedan comparecer como demandados en el plazo de nueve días en el expediente del recurso contencioso administrativo (procedimiento ordinario 27 /2014) que se sigue ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 1 de Donostia-San Sebastian.

Eskoriatza, 31 de enero de 2013.

EL ALCALDE

RESOLUCION DE ALCALDIA

Nº: B 14/00079

FECHA: 11/02/2014

ASUNTO: COMPARCENCIA EN PROCEDIMIENTO

EXPEDIENTE: 2014IGAP0009

INTERESADO: JUZGADO de lo CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO Nº3 de DONOSTIA

CONSTRUCCIONES OTEGI GAZTAÑAGA S.L. ha interpuesto recurso contencioso administrativo contra la Resolución de la Alcaldía Nº 1080, de fecha 17 de octubre de 2013 , por el que se desestimaba el recurso de reposición interpuesto contra la Resolución de Alcaldía Nº 979, de fecha 23 de setiembre de 2013.

De conformidad con lo establecido en los art. 48 y 49 de la L.J.C.A.

R E S U E L V O

1º.- Remitir al Juzgado de lo Contencioso-Administrativo Nº 3 de Donostia-San Sebastian, copia autentificada del expediente completo relativo a dicho acuerdo.

